

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2024ko martxoak 22 · 1306 zenbakia



INOIZ BAINO HARROAGO

www.urrategiinteriorismo.com
Elder Arregui 27 Arpegia Artea 9

PROIEKTUAK
SUKALDEAK
BARNE DISEINUA



URRATEGI

INTERIORISMO
barne diseinua

MGEP

MONDRAGON GOI-ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA AIZENBERGARRITIA, KOOPI E.

Go! Mallako Heziketa

Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak
- | Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industriala
- | Automatizazio eta Robotika Industriala

Espezializazio

Ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa

#LanerakoGertu

ATE IREKIAK

Martxoak 23 11:00etan

Maiatzak 4 11:00etan

Eman izena!



MGEP: 664298683
664298704

mondragon.edu/lanbideheziketa

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2
Tel. 943 20 41 94
Fax. 943 82 00 06
egurenyasociados@gmail.com

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.es
consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



Korrika pasa da Eibartik eta irudi gogoangarriak laga dizkigu. Urduritasunak emozioari eman zion lekukoa eta, eguraldia lagun, une ahaztezinak bizi izan genituen eguazten goizean. Gainera, martitzenean Korrika Txikia egin zen herrian eta irudi guzti horiek YouTubeko kanaleko bideoetan jaso ditugu.

etakitto.eus



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzekeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Hortik esanak



Euskal argazkilari batek poliziarik gabeko zubia zeharkatu zuen migratzaile baten irudia argitaratu zuen. Euskal kostaldea erdibitzen duten polizia-kontrolen aurkakoa da ustez euskal gizartea. Ustez, diot, memoria eskasia ederki barreiatzen delako edozeinen baitan eta ahotik atera bezain pronto hitzak desagertzen direla ere jakitun baikara. Izan ere, argazkilariak zentzugabeko kritikak jaso behar izan ditu migratzaile baten argazkia argitaratzeagatik. Konplize izatea egotzen diote hainbatek eta bada Espainiar Estatuako poliziarri gertatutakoa erakutsi dionik ere.

GARAZI KAMIO, zutabegilea

Aurrekoan Nagua Albak zioen ez duela paperezko egunkari bat sekula santan erosi. Paperezko egunkariak erosten ditugun gazteenak zein ote gara? Nire atarian bada Goierriko Hitza jasotzen duen ni baino gazteago bat, 1978koa esango nuke dela. Ondorioztatu dut berrogeitik beherako gutxiak erosiko dutela egunkaria paperean. Kiosko bateko saltzaileari entzun nion esaten paperezko El Diario Vasco Berria baino lehenago desagertuko dela. Hark bazituen bere kalkulak. Euskararen kontsumitzaileak gutxiago baino fidelagoak direla esaten zuen.

ASIER IRIONDO, Hizkuntza aholkularia

Hildakoak

- **Milagros Uriarte Zamakola.** 92 urte. 2024-03-14.
- **Gabriel Otalora Etxaburu.** 63 urte. 2024-03-14.
- **Roberto Altuna Iriondo.** 93 urte. 2024-03-14.
- **Virginia Perez Marcos.** 89 urte. 2024-03-14.
- **Marce Martín Hernando.** 82 urte. 2024-03-14.
- **Itziar Uranga Lizaso.** 87 urte. 2024-03-15.
- **Josefa Larrañaga Iparragirre.** 90 urte. 2024-03-16.
- **Isabel Lamikiz Urrutxua.** 94 urte. 2024-03-16.
- **Arrate Igartua Arizaga.** 80 urte. 2024-03-17.
- **Enrique Errasti Padilla.** 81 urte. 2024-03-17.
- **Juana Perez Babarro.** 74 urte. 2024-03-17.
- **Socorro Flores Garcia.** 95 urte. 2024-03-18.
- **Walter Tuzzeo.** 47 urte. 2024-03-18.

Jaiotakoak

- **Jalid Moussa Samadi.** 2024-03-14.

1933

Mercedes Kareaga Goi Argiko sortzailea

Eibarko Udal Artxiboko irudi honetan ikusten duzuen Mercedes Kareagaren ekimenez sortu zen Goi Argi elkarte, 1951ko San Jose egunean. Bakarrrik emakumezkoentzat eratutako elkarte aitzindaria izan zen bere garaian, eta oraindik ere martxan dago, Toribio Etxebarria kalean.



Farmaziak

BARIXAKUA 22 EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)	ZAPATUA 30 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 23 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)	DOMEKA 31 EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 24 EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)	ASTELEHENA 1 EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 25 EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)	MARTITZENA 2 EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
MARTITZENA 26 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)	EGUAZTENA 3 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUAZTENA 27 EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)	EGUENA 4 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 28 EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)	BARIXAKUA 5 EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
BARIXAKUA 29 EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)	GAUEZ BETI , 2024an, Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20



Zaporeak erronka solidarioa agurtzeko ekitaldia egingo da bihar Errebal Plazan

Astelehenean hasi eta gaur amaituko da Zaporeak-Lesbos Proiektuaren erronka solidarioaren baitan antolatutako dilista-bilketa. Kanpainaren amaiera-ekitaldia, berriz, bihar izango da, Errebal Plazan, 14:00etatik 15:00era. Bertan tuper solidarioak salduko dituzte, 5 eurotan, eta lorzen duten dirua Greziako errefuxiatuei laguntzeko izango da. Zaporeak-eko kideek azaldu dutenez, “sei hilabeterako joan ginen Greziara, eta jada zortzi urte daramatzagu hango

errefuxiatuei jaten ematen. Gaur egun 3.050 otordu banatzen ditugu egunero, eta horretarako janari, boluntario eta diru asko behar da”. Eibarren, iaz bezala, pardina dilistak batzen ari dira toki hauetan: Toribio Etxebarria kalean (Ametza taberna aldamenen ipini duten dendan), ikastetxeetan, Teknikerren, Debegesan, Ipuruako Jubiletxean, Untzagako Gizarte Etxean, Amañako kioskoan, SD Eibarko dendan, eta ...eta kitto! Euskara Elkartearen.



Banatu ditugu Errigoraren bi otarrak

Belen Arana eta Gorka Zubeldia izan dira aurreko astean egindako zozketako saridunak. Zorionak!

1969an jaiotako enjain parte hartu nahi dutenek apirilaren 5era arteko epea daukate izena emateko

Apirilaren 13an elkartuko dira 1969an jaiotako eibartarrak, beraien jai egiteko: 13:00ak aldera Untzagan elkartuko, argazkia egin eta txikiteoan ibiliko dira, ondoren Unzaga Plaza hotelean bazkaltzeko. Bazkalostean Arno DJ-ak 80ko hamarkadako musika ipiniko du, opariak egongo dira... Joan nahi duenak apirilaren 5era arteko epea dauka izena emateko. Horretarako 80 euro sartu beharko ditu ES49 2080 3619 2130 4007 1817 kon-tuan (Abanca), izen-abizenak eta “Kintada 1969” ipinita.

ASANBLADA INFORMATIBOA

ZER GERTATZEN ARI DA TXOSNAGUNEAREKIN?

**LARUNBATA 23, 12.30
TXALTXA ZELAIKO
ESZENATOKIAN**

Txosnen inguruko asanblada irekia deitu dute biharko

Sanjuanetarako txosnak non kokatuko diren inguruan Udalarekin adostasunik ez dutela oraindik lortu ikusita, egoera zertan den azaltzeko asanblada informatiboa antolatu du Jaixak Herrixak Herrixandakok, Txaltxa Zelaian, 12:30ean.



Gure Eskuk ikurriñak eta nafar banderak salduko ditu gaur Untzagan

Gure Eskuko kideak gaur ere ikurriñak eta nafar banderak saltzen egongo dira, 19:00etatik 20:30era Untzagan. Gure Eskuren 'Herri Libre Bat' dinamikaren baitan, herri harro bat irudikatuko da 23. Korrikan, eta asmo horrekin abiatu dute salmenta.

Ordutegi berezia kirol instalazioetan

Aste Santuan ordutegi berezia egongo da kirol-instalazioetan. Ipuruia Kiroldegia: osteguna 28, 9:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 20:00etara; ostirala 29, 9:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 20:00etara; larunbata 30, 9:00etatik 20:00etara; igandea 31, 9:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 20:00etara; astelehena 1, 9:00etatik 13:00era. Unbeko kirolgunea: osteguna 28, 9:00etatik 20:00etara; ostirala 29, 9:00etatik 20:00etara; larunbata 30, 9:00etatik 21:00etara; igandea 31, 9:00etatik 20:00etara; astelehena 1, 9:00etatik 20:00etara. Eta Orbea Kiroldegia osteguna 28, 9:00etatik 14:00etara; ostirala 29, 9:00etatik 14:00etara; larunbata 30, 9:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; igandea 31, 9:00etatik 14:00etara; eta astelehena 1, 9:00etatik 14:00etara.

PSE-EE eta EAJ udal taldeek aurrekontu-akordioa sinatu dute

Eibarko PSE-EE eta Eibarko EAJ-PNV udal taldeek akordioa lortu dute 2024. urteko Eibarko Udalaren kontuak aurrera ateratzeko, Udalbatza osatzen duten 21 zinegotzietatik 14 zinegotziren babes zabala ziurtatuta. Gobernu taldeak bere garaian egindako aurrekontuen zirriborroari buruz bi taldeek egindako negoziazio luzeen ondoren, eta alegazioen aldiaren bi alderdiek aurkeztutako zuzenketa proposamenak adostu eta gero, lortu da akordioa. Horrela, 2024ko udal aurrekontua Udalbatzak onartzea bermatuta geratu da.

Negoziazioen emaitza eta horren ondoriozko akordioa orain egun batzuk jakinarazi dira, bateratutako prentsa-ohar baten bitartez. Bertan, bi alderdiek positibotzat jo dute akordioa. Diotenez, “2024ko aurrekontua aberasten du, hainbat jarduera-esparrutan eragiten duten proiektu eta neurriekin, hala nola azpiegituretan, aparkalekuan, kulturean, kirolean edo elkartetan, eta hiriko gune eta auzoei mesede egingo diete“. Akordioan jasotako zuzenketen guztizko balioa 1,3 milioi euro ingurukoa da, eta gobernu

taldeak aurkeztutako 48,8 milioi euroko aurreproiektuan sartuko dira. Akordioak talde jeltzaleak aurrekontu-zirriborroari egindako hainbat zuzenketa eta Eibarko PSE-EEK berak sinatutako beste batzuk jasotzen ditu. Jeltzaleen zuzenketen artean, besteak beste, hauek daude: aparkaleku berriak lortzea, Jardinetako aparkalekua handitu eta auzoetan aparkaleku perimetralak egiteko beste proiektu batzuk idatzita; haur-jolasak berritzea eta kirol-kantxak jartzeara; Unbeko kirol-instalazioak hobetzea; herriko hainbat kolektibok beraien jarduerak behar bezala egin ahal izateko inbertsioak eta laguntzak ematea; eta auzoen suspertze sozioekonomikoa bultzatzeko proiektu pilotu bat martxan jartzeara.

Ana Telleria sozialisten bozeramaileak nabarmendu duenez, “adostasun handiagoa lortzea gustatuko litzaiguke, eta EH Bildurekin lortzekotan egon gara, baina azkenean heldutasuna eta erantzukizuna falta izan zaizkiela, eta estrategia soberan izan dutela pentsatzen dugu”.



Organikoak biltzeko edukiontziak itxiko dituzte, jarrera desagokiak saihesteko

Mankomunitateak ia 130.000 euro erabili ditu edukiontzi marroietan behar ez bezala lagatako poltsak ateratzeko. Iazko ekainetik aurtengo martxora bitartean, 64.568 poltsa desagoki atera dituzte edukiontzi marroietatik. Eta, guztira, 2022an eta 2023an, Mankomunitateak 129.973 euro erabili behar izan ditu edukiontzi marroietan desagoki agertzen diren poltsak ateratzeko, “izan ere, edukiontzi marroira biohondakinak ez diren hondakinak botatzen badira, edukiontzi guztia kutsatzen da eta ondorioz ezin da birziklatu. Beraz, ingurumenari kalte egiteaz gain,

eskualdearen ekonomian ere eragin negatiboa du hondakinak ez sailkatzeak”, azaldu dute. Hori horrela, Mankomunitatea hasi da neurriak hartzen eskualdeko Udalekin elkarlanean, eta dagoeneko iragarri du edukiontzi marroiak itxiko dituela aurtun, “edukiontzi marroietan hondakin desagokiak agertzea saihesteko”. Era berean, Mankomunitateak hondakinak biltzeko ordenantza aldatuko du laster, hondakinak behar bezala banatzen ez dituzten erabiltzaileei espedienteak zabaltzen hasteko, horrela jokaera desagokiak zuzentzeko esperantzarekin.

Walter Tuzzeo soinu teknikariaren heriotzak tristura handia eragin du

Sizilian jaio eta azken urteotan Eibarren bizi izan den Walter Tuzzeoren bat-bateko heriotzak tristura sakona eragin du eibartar askoren artean. Musikazale amorratua, soinu ikasketak egin zituen Milanen eta, gero, New Yorken egon zen lau hilabetez. Han ezagutu zuen bere emaztea izango zena, eta elkarrekin etorri ziren Eibarrera. Legarreko musika lokaletako grabaketa-estudioaren arduraduna izan da azken urteotan. Hori dela eta, herriko musikari gehienekin lanean aritutakoa da. Hutsune handia lagatzen du herrian, baina bere oroitzapenak ozen jarraituko du gure artean. Goian bego.



Domekarako manifestazioa deitu dute Eibar Palestinarekin eta Gerrarik Ez taldeek

Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik Ez taldeek domekarako manifestazioa deitu dute, gerrak, sarraskiak eta genozidioak gertatzea eskatzeko. Horrekin batera, Gazarako su-etena eta laguntza humanitarioa eskatuko dituzte, baita estatu palestinarraren onarpena ere: “Nazioarteko komunitate demokratiko bat nahi dugu, utzi de-

zagun atzean beto-eskubidea duten bost pribilegiatuen feudalismoa”, diote. Manifestazioa Untzagan hasiko da, 13:00ean. Bestalde, bi plataformek eskatuta, Udalak Palestinako bandera Untzagan ipini duela jakinarazi dute, eta mozio bat onartu duela Udalbatzak, “nahiz eta guk aurkeztu genuenetik desberdina izan”.

AUTUAN

LOIURAKO AUTOBUSA MUGI SISTEMAN SARTU DUTE

Loiuko aireportura doazen Lurraldebusen lineak Mugi-sisteman integratu dituzte aste honetan. Horrela, astelehenaz geroztik, posible da Mugi txartelarekin autobusean bertan ordaintzea, deskontuarekin gainera. Eibartik Loiurako autobusa hartzen dutenek 1,94 euro ordainduko dituzte Mugi txartelarekin; 2,53 euro Mugi anonimoarekin; eta 7,45 euro, berriz, Mugi txartel barik. Eibarko Udaletik ekimena txalotu egin dute, zerbitzua %80 merketzen da-eta. Bestalde, Loiuko aireporturako autobusa Mugin txertatu ondoren, pandemian abiatutako Lurticket aplikazioa bertan behera geratu da. Beraz, aurrerantzean, txartelak leihatilan, autosalmentarako makinetan, Internet bidez edo autobusean bertan, txartelarekin ordainduta salduko dira bakarrik.



Herriaren historia eta ondarea ezagutzeko bisita gidatuak egingo dira Aste Santuan

Udalak, Ekonomiaren Garapen, Enplegu eta Berrikuntza Sailaren bitartez eta Debegesa eskualdeko garapen-agentziarekin lankidetzan, bisita gidatuen edizio berri bat antolatu du Aste Santurako, "hiriko eskaintza turistikoa ezagutarazteko eta bertako elementu erakargarriak eta historia balioan jartzeko". Bisitek ordu eta erdiko iraupena izango dute (18:00etan hasi eta 19:30ean amaituko dira) eta martxoaren 28an, 29an (euskaraz) eta 30ean, eta apirilaren 1ean

egingo dira. Bisitak doakoak dira, baina alde zuzenarekin erreserba egin beharko da, ekonomia@eibar.eus helbidera idatzi edo 943 70 84 51 telefonora deituta (lan-egunetan, goizeko ordutegian). Martxoaren 27ra arte eman daiteke izena. Nerea Alustiza historialari eibartarrak egingo ditu bisitak, San Andres parrokiaren hasi eta Estaziño kaleraino. Ibilbide horri jarraituta, herriaren historiari eta ondare industrialari buruzko azalpenak emango ditu.

PUBLI RESA
agente publicitario

merchandising
serigrafia
lanerako errota

www.publiresa.com
publiresa@publiresa.com
943 701 487 / 615 799 415
Amagín, 3-5 behea

ek!

Zure publizitatea herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

FUNEUSKADI
Funeraria

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATORIO EIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Osaola, 27
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20
Elgoibar: Xaillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Ermuako bulegoa: Marqués de Valdeleón, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Korrika giroa ekarri zigun Eibarrera Pituxa klownak

Korrika Eibartik herenegun igaro bazen ere, joan den astean motorrak berotu genituen andereño Rositaren (Itziar Saenz de Ojer) eskutik. Sorreratik gaur egungo Korrikarainoko ibilbidea erreparatu zuen AEK-ko irakasleak: lehenengo edizioak, Korrikako kantuak, lekukoa hartu eta emateko aholkuak... Barre algaru artean ordutebe dibertigarria pasa zuten Zaizoi tabernan egindako bakarriketara hurbildu zirenek. Korrika Kulturalaren barruan antolatu zuen ikuskizuna ...eta kitto! Euskara Elkartek.



Apirilean itzuliko da auzoetara Barixakuak Jolasian ekimena

...eta kitto! Euskara Elkartek antolatzen duen Barixakuak Jolasian Aste Santuko oporren ondoren itzuliko da herriko auzoetara. Apirilaren 12an Txaltxa Zelain egingo dira jolasak, 19an Torrekuan eta 26an Urkizuko parkean.

Familien aisialdia euskaraz izatea eta gurasoen arteko euskarazko harremana zabaltzea eta saretzea du helburu, eta ordubetez jolasak

eskaintzen ditu 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat, doan.

Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programak familien artean ezagutzera eman nahi ditu ...eta kitto!-k ekimen honen bidez. Gurasoak Berbetan familia-giroa eta lagun arteko giroa euskalduntzeko programa da eta Ongietorri, berriz, harrera eta elkarbizitazarako egitasmoa.



Kalean da martxoko Txikitto! aldizkaria

Joan den astean banatu zuen ...eta kitto!-k eskoletan, LH1etik 6. mailara arteko ikasleen artean, Txikitto! hilabetekariaren martxoko alea. Ohiko txiste, ipuin eta denborapasaz gain, Arrateko Andra Mariko ikasleek Erdi Aroko musikari buruz ikasi dutena azaldu digute eta La Salle ikastetxeko Mikel Tueros ikasleak Itziar Gallastegui amamari egin dio elkarrizketa. Aste Santua tarteko, apirilean ez da alerik argitaratuko, baina ikasturtea amaitu aurretik beste bi Txikitto! izango dira, maiztzean bata eta ekainean bestea.

Eibar kalera irten zen eguna

Horrelakoa bihurtu zitzaigun eguazten goiza. Bazetorrela eta, urduritasunak emozioari eman zion lekukoa. Korrikak harrapatutakoan, baina, barreak eta malkoak elkartu ziren, kolore anitzeko tropelari sentimenduak gaineratuz. Euskara guztion ahotan entzun genuen goiza amaitzerakoan, batzuen nekea hor egonda ere, poztasuna eta asebetetzea nabarmendu ziren. 54 taldek hartu zuten lekukoa Eibarko kilometroak osatzeko, baina inoiz ez bezalako jende kopurua ordezkatu zuten bidean. Maltzagara bidean, eta haratago ere, Eibar HARRO baten berri eman zuen gure HERRiak martxoaren 20an.



argazki eta bideo gehiago: etakitto.eus









UNI EIBAR-ERMUA



BERTAKO IGOGAILUAK



HIZKUNTZA ESKOLA



AMAÑA JAI BATZORDEA



EPA/HHI



ARMERIA ESKOLA



URBAT WATERPOLO



UEU-UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA



KONTXA LASPIUR ZABALA



SD EIBAR



EIBAR BHI



JOSU EGIGURENEN LAGUNAK



AEK



LAB



GAZTE MUGIMENDUA



SORTU



MAITE ARROITAJAUREGI (MURSEGO)



KAXA



ASTIXA



ARRATE KULTUR ELKARTEA



ASPE PELOTA



KLUB DEPORTIBOA



EIBAR RUGBY TALDEA



UDALEKO LANGILEAK



ULIAZPI



EH BILDU



SARE



ETXERAT



GURE ESKU DAGO



J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASO ELKARTEA



J.A. MOGEL IKASTOLA



SAN ANDRES ESKOLA



SAN ANDRES ESKOLAKO GURASO ELKARTEA



EIBAR BHI-KO GURASO ELKARTEA



DENDARIEN ELKARTEA



...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA



EIBARREN AKEBAI



ALDATZE ESKOLAKO GURASO ELKARTEA



ALDATZE ESKOLAKO IRAKASLEAK



URKIZU IKASTETXEKO GURASO ELKARTEA



EIBARKO UDALA



NALUA



EIBARKO BASO BIZIAK



KIROLBET



LEGARREKO JAI BATZORDEA



LABORAL KUTXA



EIBARKO SUHILTZAILEAK



PSE-EE



ELKARREKIN PODEMOS



EUSKOTRENEKO LANGILEAK



TEKNIKER



CODESYNTAX



DANOBAT



EKINGUNE

Argazki guztiak eta bideoak
etakitto.eus webgunean

EZTEIAK eta JAUNARTZEAK



KILIKLIK

GEHIGARRIA

47. zenbakia. 2024ko UDABERRIA

Iritsi da eguna!!!

Gaur egun ez dago ezkontza bat egiteko modu bakarra. Bikote bakoitzak imajinatu eta erabaki egiten du nola gozatu nahi duen egun horretaz. Klasikoenak, unibertsitateko festak gogorarazten dituzten ospakizunak, musika, jokoak eta lagunak protagonista dituztenak. Belaunaldi gazteenek modan jarri dute 'Zure ezkontza, zure arauak' deritzona, eta aurtengo ezteien joeretako bat bihurtu da.

Emaztegiaren soinekoa izaten da "buruhauste" gehien ematen dituenena. Emaztegiaren jantzia ezkontza baino bederatzi edo sei hilabete lehenago bilatzea gomendatzen dute adituek. Horregatik, aste horiek ezin hobeak izan daitezke emaztegiaren ametsetako *looka* bihurtu daitekeena imajinatzeko.

- **Kapak:** Orain dela zenbait denboralditako hona, kapak oso osagarri estimatuak bihurtu dira, gonbidatuentzat zein emaztegiarentzat. Kapak ez dira neguko looketara mugatzen. Modelo jarioak, bordatu edo lauak, sorbaldako markatuekin ikusiko ditugu.

- **Prakak:** Apustu hau sendotzen ari da urtetik urtera, bereziki ezkontza zibiletan edo ezkontzako bigarren look gisa.

- **Mahukak:** Bolumena duten mahukak daude. Soineko sinpleena goitik behera aldatzeko gai dira: emaztegi askok nahiago dute beren arreta lookeko elementu bakar batean jarri, mahukak benetako protagonista bihurtuz.



KILIKLIK

 **ROSANA**
ILEAPAINDEGIA
943 120624
URKIZU PASALEKUA, 7 - BEHEA

 **San Andres**
Gozotegia
Bildebarrieta, 28 943 20 79 73
Ezkontzetarako tartak eta opariak prestatzen ditugu

fasprint
inprimategia
EZKONTZA GONBIDAPENAK
gonbidapen pertsonalizatuak argazkiarekin
SERIGRAFIA
943 20 16 13 688 68 73 85 Ego-Gain, 11 ac
fasprintei@yahoo.es www.fasprinteibar.com

"TIRO PITXOI JATETXEA"
Arraten
- Eguneko menua
- Menu pertsonalizatuak
- Menu bereziak
- Karta...
- Ezkontzak
- Ospakizunak...
TERRAZA EDERRA BISTA PAREGABEEKIN 943 20 88 59



KILIKLIK

- Eskoteak: Obalatuak, ebakiak, V formakoak... Diseinatzaileek komunean jarri duten elementuren bat badago bizkarra agerian uzten duen eskotea da, batez ere irudia goratzen duten botoidun soinekoetan.

- Bi piezako konjuntioak: neska-lagun berriek gero eta gehiago egiten dute ihes linea klasikoenetatik, eta soinekoek aukera gustukoena izaten jarraitzen duten arren, bi piezako konjuntioek lekua irabazten dihardute. Efektu liluragarri bera lortzen dute, baina ikutu original batekin.

Makillajea

Iaz larruazalak askoz ere minimalistagoak ziren, testura zeharrargiekin eta aurpegi garbiekin; 2024an, berriz, emaztegaiek estaldura handiagoko produktuekin makillatutako azala izango dute. Horrek ez du esan nahi emaitza aurpegi laua eta guztiz matea izango denik, azala produktu argitzaileekin orekatuko baita, eta, horrela, oinarriaren estaldurak larruazalean akabera opakuagoa ematea saihestuko baita. "Makillatzeko erraztasuna da joera", diote profesionalek. Makillajea tresna ezin hobea izango da "aurpegi-efektu ona" sortzeko, makillaje-ukitu sotilak erabiliz. Efektu hori lortzeko eta itxura osasungarria izateko, funtsezkoa izango da azala prestatzea. Gainera, ezinbestekoa da eguzki-babesa erabiltzea orbanak ager ez daitezen, makillajea kentzea oheratu aurretik eta elikadura zaintzea, ilea eta azala osasuntsu egon daitezen.

Gerritek
INFORMATIKA

info@gerritek.net www.gerritek.net
Txantxa-Zelai, 4-6. Tel. 943 03 38 92

Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta

Neurrira egindako software-aren garapena

YOKASTA Calbeton, 22-24
Tel. 603 344 258

manikura-aretoa

MANIKURA
5 Etik hasita

PEDIKURA
10 Etik hasita

zure azarkalak
zure espresibidiera

KERALA JORGE GARZA

www.estetikakerala.es
www.cosmeticaidelbienestar.es

Urkizu, 11 solaruartas 943 53 05 25

Makillajea Etxean Bertan

Estetika Tratamenduak, Manikura, Depilazioak, Emaztegaientzako BONO BEREZIA...

Errebal, 16

umea

943 203 164



KILIKLIK

2024an, betileei protagonismoa ematen jarraituko dugu. Aliatu nagusiak betileen luzapenak edo ile bidezko ordezkotako betileak izango dira. Bi teknika horien bidez, begiaren forma modu naturalean aldatuko da, itzalik erabili gabe. Gainera, kontuan hartu behar ditugu ondo orraztutako eta definitutako bekainak. Bekainetako makillajearen trazuak ilez ile izango dira, berezko tonu berberarekin. Eta emaitza on bat lortzeko, gogoratu depilazioaren garrantzia: hari bidezko depilazioarekin eremua ondo garbituko dugu, bekaina mehegia laga gabe.

Udaberrian edo udan ezkontzen diren emaztegaiek ezpainak margotzeko nude koloreen alde egingo dute. Formulazio nahiko krematsuez ari gara, glow izan gabe, ezpainetako mamitsua eta distiratsua ikus dadin. 2024ko neguari begira edo ezpain so-

fistikatuena atsegin dituzten neska-lagunentzat, gorria eramango da, ez oso bizia, baizik eta granatera hurbilduz.

Lora-sortak

Aspalditik eramaten dira neska-lagunaren soineko sinpleak; beraz, ez da harriztekoa sinpletasunaren aldeko apustua ere lore-sortetara ailegatzea. Lore mota bakarrarekin edo gehiagorekin, hala nola arrosak, kalak, ekiloreak, tulipanak, peoniak edo margaritak, adibidez, begetazio askorekin. Kasu batzuetan itxura basatia ere izaten dute, mendian jaso berriak diruditen loreekin. Bestalde, tendentzia dira kolore biziko lore-sortak eta baita vintage estetikadunak ere. 2024an neska-lagunaren lora-sorten artean, mugimenduz betetako proposamenak ere aurkituko dituzu.

An advertisement for the clothing store ROCA. It features a central text box with the store name in large green letters, the address 'CALBETON, 16 -IBAR-' and the phone number 'TEL. 943 20 80 06'. Below this, it says 'Ezkontza eta egun berezietan ZUREKIN!!'. The text is flanked by two images showing the interior of the store with various clothing items on display.



BELAUSTEGI

— BASERRIA —

ZURE EZKONTZA
ZURE NEURRIRA!



SAN MIGEL GAINA, 44 . 20870 ELGOIBAR



943 74 31 02

WWW.BELAUSTEGI.COM

CAPI Bidebarrieta, 5 943 201 547
www.capiestetica.es

UltraLift HIFU
Intentsitate handiko
ultrasoinu fokalizatua

LIFTING
KIRURGIKOAREN
BENETAKO
alternatiba

BETILE LUZAPENAK / LIFTING

GORPUTZ TRATAMENDU BERRIA

ZELULITISArekin ERAGINKORRA
DEN TEKNOLOGIA BAKARRA

ZONALDEAK
Izterrak / Ipur-masailak
besoak / sabelaldeak

Azalarren
ELASTIKOTASUNA
hobetzen



KILIKLIK

Bitxitegia

J. Salaberria

Errebal, 22 943 20 20 79

RELOJERIA
SALABERRIA

Bidebarrieta, 8

Twins

tel. 943 05 60 82 • www.twinsseibar.com

Iradi

LORA DENDA

San Juan, 1
Tel. 943 20 33 29

Entzarguak
etxera

Historia eta bitxikeriak

1.- Antzinako Erroman, ezkontzeko gutxieneko adina 14 urte zen gizonentzat eta 12 emakumeentzat. 30 urterekin ezkontzea imajinaezina zen.

2.- Eraztuna ezkerreko eskuko hatzean jartzea ez da kasualitatea. Antzinatek uste zen hatz horretatik zuzenean bihotzera iristen zen zain bat ateratzen zela. Erromantikoa, ezta?

3.- Antzinaroan, ezkontza ez zen oinarritzen elkarren arteko maitasunean, baizik eta familiak parekatzeko, ondasunak eskuratzeko eta boterea betikotzeko seme-alabak sortzeko interesean. Kontratu hori neska-lagunaren aitaren eta senargaiaren artean ezartzen zen. Emakumeak ez zuen ahotsik erabakian.

4.- *Leviratoa* ezkontza mota bat da, eta horren arabera hildako baten anaia haren alargunarekin ezkontzera behartuta dago, hura babesteko eta haren hornitzaile izateko. Mundu osoan ematen zen praktika komuna zen, eta gaur egun Afrikako zenbait herrialdetan egiten da.

5.- Arrozak Ekialde Urrunean du jatorria, eta zuzenean emankortasunarekin lotuta dago. Zergatik botatzen da arroza ezteietan? Bikotearen ugalkortasunari laguntzea ondorengoak izatea lor dezaten. Urteak igaro ahala, tradizioek aurrera egin dute, eta orain ideia asko daude arroza ordezkatzeko, adibidez, arrosa-petaloak edo xaboi-ponpak erabiltzen dira.

6- Zerbait zaharra, zerbait berria, lagatako zerbait eta urdin samarra. Objektu zaharrari dagokionez, normalean familia-erlikia bat erabiltzen da. Zure familiakoren baten jantzia edo bitxi bat izan daiteke.

Zerbait berria: neska-lagunak senarrarekin familia bat hasten duenean izango duen bizitza berriarekin batera doa: itxaropena esan nahi du, etorkizunerako baikortasuna eskaintzen du. Zerbait mailegatua: maileguan utzitako objektu batek beste neska-lagun baten arrakastari egiten dio erreferentzia, eta, hala, gure ezkontzari zorte ona egin nahi dio. Kolore urdineko zerbait: koloreak leialtasuna eta garbitasuna adierazten duela diote.

7.-Victoria erregina izan zen andregaiarentzat soineko zuria sartzen aitzindaria. Emaztegaia soineko zuri batekin ezkontzeko tradizioa 1840koa da, urte hartan Victoria erreginarene eta Alberto de Sajonia-Coburgoren arteko ezkontza gertatu baitzen. Erreginak jantzi zuri bat aukeratu zuen ospakizunerako, eta Europa osoan zabaldu zen ezkontzaren erretratu. Irudi hori emakume askorengana iritsi zen, eta erreginarene ohorez antzeko janzkera aukeratzen hasi ziren. Ezkontzan jantzi zuria erabiltzeko tradizioak gaur arte jarraitzen du, nahiz eta kolorealdaketa txikiak izan.



KILIKLIK

Esan baietz

Era utzi ezazu ezkon-bidala
Viajes El Corte Inglés-eko adituaren eskuetan

Galdetegi hau bete eta lortu 60 €-ko deskontua hurrengo bidalarako

Informazioa eta erreserbak zure Viajes El Corte Inglés agentzian
Errebal Kalea, 16 - Eibar
Tel. 943 82 09 13

200€
ARTEKO DESKONTUA
ZURE HURRENGO
BIDALARAKO

€
PREZIO HOBEA
AURKITZEN BADUZU,
BERDINDU EGINGO
DIZUGU!

3
3 HILABETETAN
ORDAINDU*

♡
ARRETA BEREZIA
EZKONBERRIARENTZAT

VIAJES El Corte Inglés

JAUNARTZEA

kontuan hartzekoak

Jaunartzea antolatzea oso garrantzitsua da familia askoren bizitzan, eta gauza garrantzitsu asko hartu behar dira kontuan guztia ondo ateratzeko. Hona hemen zenbait iradokizun:

- **Eguna eta tokia:** Jaunartzeko eguna eta tokia erabaki behar dira. Hautatu familiarentzat komeni den data eta lekua.

- **Gonbidatuak:** Egin ezazue gonbidatu zerrenda eta bidali gonbidapenak garaiz. Ziurtatu hurbileko senideak eta lagun garrantzitsuak sartzen dituzuela.

- **Erlijio-zeremonia:** Jaunartzea ospakizun erlijio-soa bada, herriko elizarekin koordinatu beharko zarete zeremoniarako guztia ordenatua duzuela ziurtatzeko.

- **Jantziak:** Erabaki zer jantzi erabiliko duten jaunartzea egiten duen haurrak eta familiako kideek. Ziurtatu behar bezala jantzita daudela.

- **Dekorazioa:** Ospakizuna egiten den tokirako dekorazioa planifikatzea komeni da, bai etxean, bai jantzetxean. Komunioarekin lotutako gai bat aukeratu dezakezu, edo, besterik gabe, dekorazio dotore eta errazak erabili.

- **Janaria eta edaria:** Menu egokia antolatu behar duzue. Bazkaria edo afari formala egin dezakezue, baita buffeta ere, zerbait informala nahi baduzue. Kontuan izan gonbidatuen elikadura-lehentasanak.

- **Aisia:** Kontuan izan ospakizunean entretenimendua izan nahi duzun, hala nola zuzeneko musika, DJ bat edo haurrentzako jarduerak, hala nola jolasak edo jolas-eremu bat.

- **Opariak:** Gonbidatuei edo jaunartzea egiten duen haurrari opariak eman nahi badizkiezue, aurrez planifikatu zein opari mota izango diren egokiak.



- **Argazkia eta bideoa:** Argazkilari edo bideografo bat kontratatu dezakezue jaunartzearen une bereziak isladatzeko. Lagunei edo senideei ere eska diezaiekezue argazkiak atera ditzatela, askotariko irudiak izan ditzazuen.

- **Esker onak:** Ez ahaztu gonbidatuei eskerrak emateko txartelak bidaltzea ekitaldiaren ondoren.

Khôl Estilistak
Ezagatu edertasun kontzientearen kultura berri bat akribio botaniko % 100 naturalekin

Estazio, 4
943 254776

secretos del agua

kili_klik

argazkilaritza fotografia

www.kiliklik.eus

646114443 • kilimakortzen@gmail.com
Instalacio Ojanguren 1 behea

Berebizikoak eta ikusezinak

Eibarko Udalak zaintzari eta etxez etxeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua eskaintzen du eta Merlin Medina abokatua da horren arduraduna. Doako arreta eskaintzen dute Andretxean eta etxez etxeko langileen sarea ehundu dute urte hauetan zehar egindako lanarekin. Zaintzaren garrantzia hainbestetan azpimarratu den sasoi honetan, lan horietaz arduratzen diren langileei lan-baldintzak eta bitzitza duina bermatzen laguntzen zaie bertatik.

Hilaren 30a Etxez Etxeko Langileen Nazioarteko Eguna da eta, askok ospatu ere ezin izango duten arren, sektorearen aldarrikapenak ikusarazten saiatuko dira. Ez da erraza, Merlin Medinak esaten duen bezala, “ikusezinak direlako”. Etxeetan ‘interna’ lan egiten dutenek astean zehar egunean bi ordu besterik ez dituzte izaten kalera irten ahal izateko “eta ez eurek erabakitako orduetan gainera”, Medinak esan digunez. “Martxoaren 8an gertatu zen bezala, ez dute kalera irteteko aukerarik euren eskubideak aldarrikatzeko. Aurten, gainera, martxoaren 8ko gai nagusia zaintza izanda”, abokatuak azpimarratzen duenez.

Langile hauek berebiziko lana egiten dute, zaintzaz eta etxeko lanez arduratzen dira, baina gizarteak existituko ez balira bezala jokutzen du. Ikusezinak dira eta euren alda-

riak beste ahots batzuen bitartez igorri behar izaten dituzte.

Medinak azaldu digunaren arabera, etxeko langile gehienek kontratuean egiten dute lan, baina horrek ez du esan nahi euren lan-eskubideak urratzen ez direnik, inolaz ere. “2023an, adibidez, 205 arreta zerbitzu eskaini genituen”, diosku abokatuak. “Eta kontratu gabe lan egiten dutenek, zer?”, galdetzen du abokatuak.

Zentzu horretan, gauza bat azpimarratu nahi du Medinak: “Langileak dira; ez dira etxetiarrak, animaliak bezala”. Izan ere, langile hauen baldintzak zenbatetan eta nola urratzen diren ikusita, badi-rudi gizarteak beste maila batean kokatzen dituela, egiten duten gutt-tia kontuan hartu barik.

Aholkularitza eta orientazioa

Medinak eskubide ikasketak egin zituen eta genero berdintasunean

masterra du. “Emakumeekin lan egitea maite dut”, aitortu digu. Horrela, emakumeen eskubideen aldeko borrokan gogor lan egin du hainbat urtetan zehar, eta bere kabuz hasi zen etxez etxeko langileei laguntza eta aholkularitza eskaintzen. Horrela, talde bat osatu zuen eta, bere lana eta herrian zegoen beharra ikusita, Udaleko Gizarte-kintza sailak zerbitzu hau eskaintzea erabaki zuen 2019an. Plaza lehiaketara atera eta Medinak lortu zuen postua, aurretik egindako lanari jarraipena eta beste dimentsio bat emanez.

Medinak aurrez aurreko zerbitzua ematen du Andretxean, 4. solairuan, eguaztenetan, 16:00etik 19:00era, eta beharrezkoa da aurretiko hitzordua egitea. Horretarako, 688 64 09 83 telefonora deitu edo WhatsApp mezua bidali, edo orientacionlaboraleibarren@gmail.com helbidera idatzi daiteke.



Merlin Medina abokatua arduratzen da zaintza eta etxez etxeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua eskaintzeaz. EKHI BELAR

Zerbitzu horren bitartez zaintza eta etxez etxeko langileen lan-eskubideei buruzko orientazioa eta aholkularitza ematen da; prestakuntza-beharretan laguntzen da, “oso garrantzitsua da langileek formakuntza edukitzea, bestela, kontratatzen duten familiek ezin izango dituztelako dependentzia-laguntzak jaso”, abokatuak azaldu digunez; langileen beharren arabera, Gizartekintza saileko beste esparru batzuetara bideratzen zaie; bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua eskaintzen da gizarteratzearen eta laneratzearen arloan; eta laguntza berezia eskaintzen zaie enplegarritasun-maila txikiagoa eta lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiagoa duten pertsonari.

>>> Udalak zaintza eta etxez etxeko lanei buruzko doako aholkularitza zerbitzua eskaintzen du Andretxean

Zaintza eta etxez etxeko langile gehienek jatorri atzerritarra dute, “ia %100ean”, abokatuaren berbetan, eta Medinak atzerritartasun kontuekin laguntzen die, horrela behar izanez gero. Izan ere, oso egoera arraro eta kontraesankorrak gertatzen dira egoera irregularrak erregularizatzeko, prestakuntza jaso ahal izateko baimena lortzeko eta lan egin ahal izateko orduan.

Antzeko portzentajejan, ia %100ean, langile gehienak emakumeak direla esan daiteke. “Ba-

daude zaintza lanak egiten dituzten gizonetzkoak ere, baina ia denak emakumezkoak dira”, argitu digu abokatuak.

Kontratatzaileen ardurak

Medinaren inplikazioa ez da zerbitzu horren bitartez eskainitakoan geratzen, haratago doa. “Azkenean, euren bizitzaz ari gara berbetan”, diosku bihotzez. “Izugarrria da hau esan beharra ere, baina langile hauek pertsonak dira”. Batzuek, iritsi berriak direlako edo zenbait



Atzerriko jatorria duten emakumeak izaten dira zaintza eta etxez etxeko lanetan aritzen diren gehienak.

kontuk hemen nola funtzionatzen duten ezagutzeko aukera izan ez dutelako, ezjakintasuna dute hainbat gauzen inguruan eta abusu egoerak bizi dituzte: ez zaie behar dena ordaintzen, ez dira lan-baldintzak betetzen, edo dena delakoa.

Horrelakoak gertatzen direnean, Medinaren eskuhartzea berebizikoa izaten da eta modu pertsonalean inplikatu behar izaten da. “Askotan, lanpostu-agentziek ez dute zintzo jokatzeko eta, langileen ezjakintasuna eta beharra aprobetxatuz, langileek lan-baldintza kaskarreko kontratuak sinatzen dituzte”, abokatuaren berbetan. “Adibidez, 09:00etatik 16:00etara lan egiten dutela esaten duten kontratuak sinatzen dituzte, eta sei gau ematen dituztela etxean, baina ‘interna’ daudenak ia 24 orduz egoten dira etxean eta, azkenean, zortzi ordu horiek baino gehiago egiten dute lan, diru gehiago jaso barik edo trukean jaiegunik jaso

>>> Langileen eskubideak bermatzeaz gain, euren formakuntza bultzatu nahi dute

gabe”, azaldu digu. “Ezer sinatu aurretik, hona etortzea izango litzateke egokiena”.

Medinak pentsatu nahi du enplegatzaile gehienek fede onez jokatzen dutela, baina eskaera bat egiten die zaintza eta etxez etxeko langileak kontratatzeke orduan kontuan hartzeko: “Langileen eskubideak errespetatzea eta, eskubide horiek zeintzuk diren ez badakite, hona etortzea, azalduko dizkiegulako”.

Langileen komunitatea

Aholkularitza eta orientazio-zerbitzua eskaintzeaz gain, oso garran-

tzitsuak dira zaintza eta etxez etxeko langileen elkartasuna sustatzeko egiten diren ekintzak. 130 lagun inguru dituen WhatsApp taldea dute eta bertan Medinak informazio lagungarria helarazten die, eurentzat interesgarriak izan daitezkeen ekintzen berri ematearekin batera. Horrez gain, urtean zehar hainbat ekintza antolatzen dituzte elkarrekin gozatu, partekatu eta komunitatea sortzeko.

Iaz, adibidez, 14 jarduera egin zituzten taldean. Tailerrak, ikastaroak, hitzaldiak, eskulanak eta bestelako ekintzak egin zituzten, eta etxez etxeko langileen inguruko antzezlan bat ikustera joan ziren Coliseora. “Antzerkira zihoan lehen aldia zela esan zidan batek, pentsa”, esan digu hunkituta Medinak. Bertan, aktoreek euren lana goraiatu zuten eta zutik jarriarazi zituzten publikoaren esker ona jasotzeko. Horrela, momentu batez behintzat ikusgai izan ziren.

Astelenak Udaberri Torneoko bi final hartuko ditu gaur, herriko pilotariek

Klub Deportiboko pilotariak ezin hobeto dabilta aurtengo Udaberri Torneoa eta, horrela, gaur 19:00etatik aurrera Astelenak hartuko duen jaialdian, Gipuzkoa mailako kadeteen finala eta Gipuzkoa Mendebaldeko seniorrena jokatu dira: lehenengoan Azpilikueta-Varona Eibarko bikoteak Andoaingoa izango du aurkari, eta bigarrenean Agirresarobe-Ibarra bikoteak Aretxabaletakoa izango du aurrean, nor baino nor.

Hala ere, gaurkoaz aparte, Katedralak asteburu ezin beteagoa biziko

du oraingoan. Bihar arratsaldean Eskolarteko Txapelketako azken jardunaldia hartuko du, benjamin mailako Eibarko neska-mutikoekin batera, Aretxabaleta, Oñati, Bergara eta Antzuolakoen parte-hartzearekin. Giro berezia izaten da horrelakoetan, jende askorekin.

Eta jokoan da, baita ere, Eibarko Goma Paleta Txapelketaren 4. edizioa: bigarren jardunaldiko partiduak jokatu dira bihar goizez (09:00-14:00) eta arratsaldez (19:00etatik aurrera), eta etzi goizez (10:00etan hasita).



Azpilikueta eta Varona finalistak.



Udalatx "Klasikoa" egin zuten Deporrek mendizaleek aurreko zapatuan

Aurreko zapatuan 24 lagun animatu ziren klubaren mendeurrenaren barruan kokatutako Udalatx Klasiko atalekoa egitera; erdiak Eibartik abiatu ziren eta beste erdiak Elgetatik. Kanpazarretik aldapa gogorra igota ailegatzen da 1.120 metrora dagoen karezko tontorrera. Egun eguzkitsua izan zuten, aproposa

pare parean zuten Anbotoko edertasunarekin gozatzeko. Amaitzeko, Udalan atsedenaldira eta bazkaria izan zuten giro alai batean. Honakoak izango dira hurrengo irteerak: Aste Santuan Gredos eta Tietar aranarena; eta apirillean, beste Klasiko bat: Zegama - Aitzgorri (1.523 m) - Araia.

Ipuruako gimnastak maila onean Gipuzkoako Txapelketarako fasean

Ohorezko postu asko eskuratu zituzten Ipuruakoek amateur mailako Gipuzkoako Txapelketarako sailkapen 2. fasean. Taldekako emaitzetan, kadete A mailan eibartarrak onenak izan ziren eta senior A mailan bigarrenak. Bakarkako ariketan, bestalde, jubenil A mailako Yuma Otañalvaro lehenengoan izan zen eta postu bera lortu zuten

Nidia Olasolok eta June Txurrukak senior A mailan. Master kategoriarara pasatuz, Alicia Etxaniz bigarren sailkatu bazen, Plus mailan Maddi Teranek lehenengo tokira heldu zen bi fasetako emaitzekin. Kadeteak ere ez ziren atzean geratu: Paula Gonzalezek eta Maren Larrañagak osatutako ekipoa bigarren izan zen bezala, Eider More-



nok eta Arrate Aizpuruk osatutakoa hirugarren geratu zen.

F Ligako SD Eibar-ek Atletico de Madrid hartuko du etzi eguerdian Ipuruan

SD Eibar-eko emakumezkoen lehen taldeak Ipuruan jokatu du berriro, oraingoan ere beste aurkari zail baten aurrean. Azken hiru jar-



dunaldietan, punturik lortzea oso zail izango zuela aurreikusi bazitekeen ere, bederatzitik lau bereganatu ditu Yerai Martinek gidatzen duen taldeak, horrek erakusten duen progresioaren adibide. Etxean Levanterekin berdindu zuen, baita irabazteko aukera izan ere; eta Madrilen jokatuak azken bietan, Madrid Femeninoari irabazi eta Real Madriderkin 1-0 galdu zuen, epaileak aldeko penaltia seinalatu barik laga ondoren. Etziko aurkaria ez da aurkari errazagoa izango, Atletico bosgarren da eta sailkapenean, Europarako postua lortzeko bi puntura bakarrik.



Elgoibarko San Miguelek hartuko du Gipuzkoako hiru-txirloko 2. jardunaldia

Asteburukoa jardunaldi bikoitza izango da, gainera, gaur 23:00etan eta bihar 17:00etan izango baitira tiraldiok. Aurreko asteburuan Azkoitiko Floreagan jokatuak 53. Gipuzkoako Hiru Txirlo bola joko Txapelketaren hasieran, bestalde, 62 bolari izan ziren parte hartzen

eta Elgetako Sebas Aranzabal nagusitu zen, zazpi txirlorik. Seirekin geratu ziren bertako, Floreagako, Santos eta Erik Muñoz; bostekin amaitu zuen San Migueleko Unai Loiolak; eta Alex Campos izan zen Asola Berriko onena, laurekin. Hamar jardunaldi ditu txapelketak.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

- Emakumezkoen 1. Maila**
EIBAR - Atletico de Madrid (etzi, 12:00)
- Gizonezkoen 2. Maila**
Valladolid - EIBAR (etzi, 16:15)
- Emakumezkoen 3. Maila RFEF**
Mutilvera - EIBAR B (bihar, 18:00)
- Gizonezkoen 3. Maila RFEF**
VITORIA - Aurrera Ondarroa (bihar, 15:30)
- Emakumezkoen Euskal Liga**
Zarautz - EIBAR C (bihar, 16:45)
- Erregionaleko Ohorezko Maila**
Mutriku - EIBAR URKO (bihar, 16:30)
- Erregionaleko Gorengo Maila**
URKI - Mondragon (bihar, 18:00)
- Erregionaleko 1. Maila**
EIBARTARRAK - Aloña Mendi B (bihar, 12:30)
- Ohorezko Jubeni Maila**
San Juan - EIBAR (martxoak 27)
- Jubenetako Nazional Liga**
Santutxu B - EIBAR B (bihar, 16:00)
- Kadeteetako Euskal Liga**
EIBAR - Athletic (etzi, 12:30)

FOBALL-ZALETUA

- Bar Marem - Xania Taberna (bihar, 09:00)
- Limpieza Rueda - BOJ (bihar, 10:30)
- Baserri - Garajes Garcia (etzi, 09:00)
- Malape - Adahi Eraieder (etzi, 10:30)

ESKUBALOA

- Emakumezkoen Zilarrezko Maila**
MEK EIBAR - Synerbot La Jota (bihar, 18:30)
- Gizonezkoen 1. Maila Nazionala**
Trapagaran - MEK EIBAR (gaur, 20:15)
- Emakumezkoen Euskadiko Liga**
Bera Bera - MEK EIBAR B (bihar, 16:10)
- Gizonezkoen Lurraldeko Liga**
MEK EIBAR B - Arrasate (bihar, 12:30)
- MEK EIBAR B - Urola (etzi, 11:45)

ERRUGBIA

- Gizonezkoen Euskadiko Erregionala**
EIBAR - Universitario Bilbao (bihar, 12:00)

SASKIBALOA

- Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila**
EIBAR - Drunkat Hoops (etzi, 11:30)
- Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila**
Hernani - ARTES. JUANTXO (bihar, 16:00)
- Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila**
Eibar B - Easo Basket (bihar, 14:30)
- Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila**
EIBAR C - SaskiAxular (gaur, 20:15)

WATERPOLOA

- Gizonezkoen 2. Maila Nazionala**
URBAT - Tres Cantos (bihar, 20:15)

GIMNASIA ERRITMIKOA

- Macarena Torneoa (Bermeo)**
Nahia eta Haizeder Arguiz (etzi)

Itzulia Basque Challengeren 2. edizioa aurkeztu zuten eguaztenean

Udaletxean egindako aurkezpen horretan, Javier Riaño probako zuzendariarekin batera, Jon Iraola Eibarko alkatea eta Azahara Dominguez Gipuzkoako Aldundiko Mugikortasun, Turismo eta Lurralde Antolamenduko diputatua izan ziren. Lehenengo edizioko bi ibilbideei eutsi zaie, eta Itzuliko 6. etapa izango dute erreferente, “zaleak profesionalak bezala sentitu ahal izateko bertan”. 7 mendate, 137,8 km eta 3.600 m-tik gorako alde positiboa edukiko du Challengeak; hain erronka gogorra nahi ez dutenei, ordea, iraupen erdiko ibilbidea eskainiko diete antolatzaileek, eta 80,6 km, 4 mendate eta 2.100 m-tik gorako aldea izango ditu.

Itzulia Basque Challenge egutegi zikloturistan finkatzen hasi den honetan, izena emateko aurreikuspenak gainditu dira dagoeneko eta



epea zabalik egongo da harik eta mugatutako kopurura iritsi arte. Antolatzaileek baliabide gehiago inbertituko dituzte bi probetako ibilbideetako segurtasunean. Horrez gain, beste anoa-postu bat jarriko da ibilbidean, Arrateko Krabelineko igoera ezin gogorragoaren hasiera-hasieran.

63. Euskal Herriko Itzulia ate joka *Apirilak 1 (1. etapa)*

Irun-Irun (10 km), Gipuzkoan. Erlojupekoa. Mendia: 3. mailako Olaberria. Lehenengo zatian harritzko galtzada txiki bat egongo da, %10eko pendizarekin.

Apirilak 2 (2. etapa)

Irun-Kanbo (160 km), Gipuzkoatik Lapurdira. Mendia: 3. mailako Santa Ignace. Ihesaldietarako etapa izan liteke, oso eremu engainagarrian.

Apirilak 3 (3. etapa)

Ezpeleta-Altsasu (191 km), Lapurditik Nafarroara. Mendia: 2. mailako Otxondo, Usategieta eta Lizarrusti, 3. mailako Uitz, Zuarrrate eta Olaberria. Leku aproposa txirrindulari indartsuek bidea ireki dezaten.

Apirilak 4 (4. etapa)

Etxarri Aranatz-Legutio (157 km), Nafarroatik Arabara. Mendia: 2. mailako Opakua, 3. mailako Olaeta, Untzilla eta Leintz Gatzaga. Zirkuituaren azken zatian hiru igoera, laburrak baina oso gorrak.



Apirilak 5 (5. etapa)

Gasteiz-Zornotza (176 km), Arabatik Bizkaira. Mendia: 1. mailako Urkiola, 3. mailako Muniketagina. Hasiera izango da une lasai bakarra, Muniketa bitan eta puntuagarria ez den beste aldaparekin.

Apirilak 6 (6. etapa)

Eibar-Eibar (138 km), Gipuzkoan. Mendia: 1. mailako Azurki (5 km, %8ra), Krabelin (5 km, %10era) eta Izua (4 km, %9ra), 2. mailako Gorla, 3. mailako Elkorrieta, Trabakua eta Urkaregi. Etapa nagusia, oso exigentea eta selektiboa hasieratik, indartsuenen arteko lehia estua ikusteko.

Apirilak 7 (Challenge)

Eibar-Eibar (138 km), zikloturistentzat.

Urbat Urkotronik bakarrik geratu da lidergoan Malagan irabazita

Gure herriko waterpolo klubaren lehen taldeak Waterpolo Malagari penaltietan irabazi eta gero, lider bakarra da jaitsiera saihesteko faseko ligan. Eibartarrek laugarren garaipena jarraian lortu zuten ho-

rrela, 2. Maila Nazionalari neurria hartu dioten seinale. Partidua 13na berdindu zuten Davide Cerchirenak, jarraian 5-6 irabazteko penaltietan. Euskal Herriko Ligan, bestalde, Urbateko senior mailako

bigarren taldeak erraz irabazi zion CN Easwim donostiarrari (20-7) eta emakumezkoen senior taldeak garaipen handia lortu zuen Santonñan, gol bakarrarengatik nagusitzeko (9-10).

Errugbian Ohorezko Mailari eusteko azken aukeraren aurrean

Eibar Rugbyko emakumezkoen senior taldeak, aurrekoetan ez bezala, oraingoan arazo asko izan ditu denboraldi honetan mailari eusteko. Azken asteburuan, dena dela, Sevillan eskuratutako berdinakarekin, jaitsierako postuari izkin egitea lortu zuten Patricia Guntinen neskek. Orain, Ohorezko B Mailako bigarren sailkatuaren kontra jokatu beharko dute, elitean jarraitu edo ez erabakitzeko.

Gizonezkoen senior mailako taldeak, bestalde, ez ditu bere ibilbideko unerik gozoenak bizi une honetan. Orain dela bi denboraldi Euskadiko Erregionalerajaitsi bazen, orain liga horretako azkenau-



rrekoa da, baina puntu bakarrera du Atletico San Sebastian azken jardunaldiaren faltan.



Areto-futboleko taldeak liderrarekin berdindu zuten

Eibartarrak gure herriko areto-futboleko talde berriak ligaren azken jardunaldian Janrablu Futsal liderrarekin bosna berdindu zuten Ipuruan. Maila handiko partidua jokatu zuten eibartarrek, kontuan izanda lurraldeko 3. mailako euren multzoko sailkapenean azken postuan amaitu dutela eurentzat debuta izan den denboraldian.



AURREMATRIKULA

ALDATZE
BATXILERGOA

Apirilaren
8tik 19ra

Nahi bezain urrun
iristeko aukera



American High
School Diploma
www.academica.school





Prebidentzia Andre Mari - Aldatze Ikastetxea
Aldatze kalea, 5 - 20000 Eibar
943 70 11 50 - aldatze@aldatze.org - www.aldatze.eus



DAVID KARBA

W.

“Grabazioa berriro mozten badidazu, banoa”. Hori esan nion, gozakaiztu (desafinatu) nuela jakin arren. Ahapaldia edo estrofa berriro intonatu nuen, eta grabazioa moztu zuen. Ez nintzen joan, jakina, banekielako geldialdi hori bere profesionaltasunaren seinalea zela. “Hartzea edo toma ona bada, nahastean gutxiago tratatu beharko da” edo “hobeto egiten ikusi zaitut, beste toma bat egingo dugu”, gehien entzun nion esaldietakoak izango dira.

W.-k Legarreko lokaletako pasilloetatik harrapatzen bazintuen, bazenekien han jarraituko zenuela beste ordu laurden baten gutxienez, nahiz eta presaka ibili. W.-ren xarmaren tentazioan erortzen zinen beti eta, berarengatik balitz, egun osoa egongo zinen bera entzuten, bere azentu ahaztezinarekin. Ezagutu duen edonork badaki hori.

Berarekin izandako azken solasaldi luzean, Zaizoin izandako kontzertu baten ondoren, luze-zabal jardun genuen osasun mentalari buruz, bakoitzak bere buruari jartzen dion exigentzia-mailaren inguruan, eta beste mila gauza tarteko. “Zelan ikusi gaituzu?”, galdetu zidan. “Zoragarria izan da zuek elkarrekin jotzen ikustea berriro”, erantzun nion. “Ba uste dut askoz hobeto egin dezakegula”, esan zidan. “Jendeari berdin zaio eta, hanka sartuta ere, ez da konturatzen; larregi estutzen duzu zeure burua. Garrantzitsuena ondo pasatzea da, gustura egotea”, nik botatakoa. Baina W. horrelakoa zen, goitik beherako profesionala. Txarto findutako kaxa bat izan, akoplatze bat bera, edo jokoz kanpoko tonu bat... nahikoa zen kontzertua zapuzteko. W.-k erraztasuna zuen zuk mila urtetan ikusiko ez zenuena, edo inoiz konturatuko ez zina, detektatzeko. Bere ezagutza maila eta soinuarekiko sentitzen zuen pasioa urrats bat harago zegoelako beti. Inoiz ezagutu dudan profesionalik handienetako baitzen.

“W-ren xarmaren tentazioan erortzen zinen beti eta, berarengatik balitz, egun osoa egongo zinen bera entzuten, bere azentu ahaztezinarekin”

“W.-k erraztasuna zuen zuk mila urtetan ikusiko ez zenuena, edo inoiz konturatuko ez zinena, detektatzeko. Bere ezagutza maila eta soinuarekiko sentitzen zuen pasioa urrats bat harago zegoelako beti.”

Mila orrialde idatzi nitzakeen W.-rekin bizitako abenturen inguruan. Gure solasaldien inguruan, gure eztabaiden bueltan, estudioan izandako grabazio-saioretan, Vartools-ekin kontzertua eskaintzeko autoan egindako bidaiak protagonista direla. “Arenbila”, “Los Donettes”, “El disco de fuego”... “Nerbixuak” abestiaren leloa edo estribilloa abesten ikusten dut, euskara ezin dominatuz, baina barrez lehertuta ia negarrez hasteraino, bere sinpatiari esker. Maitagarria zen, errepikaezina esango nuke.

Gogorra izango da Legarreko pasilloetara bueltatu eta ez entzutea zelan deitzen dizun, “Daviiiiid”, Siziliako bere azentuarekin. Oso zaila izango da lokal hori itxita ikustea, jakinda dagoeneko ez diodala atea jo behar egiaztatzeko bateren bat geratzen den edo ez bertan. W. azkena zelako irteten; horregatik, gaitza egiten da asimilatzea betirako zein azkar joan den. Eta gertukoenen artean lagatako hutsunea, hori bai adierazi ezina.

Maite zaitugu eta inoiz ez zaitugu ahaztuko. Eskerrik asko erakutsi diguzun guztiagatik.



Ciao, Maestro!!!
Goian Bego, Walter Tuzzeo.

...eta kitto! Euskara Elkarteak 6 opari zozketatuko ditu bazkideen artean



...eta kitto! Euskara Elkartearen jarduera, lorpen eta amets bakoitzaren bihotzean elkarteko bazkideak daude. Bazkideak gure elkartearen bizkarrezurra dira, Eibarren euskararen alde egiten dugun ahaleginaren bultzatzaile. Bihotzez aitortzen dugu gure eginkizunean duten garrantzia, eta merezitako aitortza egin nahi diegu.

Bazkideak dira elkartearen aktiborik handiena, eta elkarrekin egindako ibilbidea ospatu eta eskerrak eman nahi dizkiegu haien laguntzagatik.

Horregatik, datozen asteetan, apirilaren 5etik ekainaren 7ra bitartean, hainbat opari berezi zozketatuko ditugu, gure bazkideentzat bakarrik. Sari hauek keinu hutsa baino gehiago dira; gure ondoan gure balioak babestuz eta gure ikuspegia partekatuz egon direnei merezi duten aitortza erakusteko modua da.

Era askotako sei opari ditugu prest bazkideen artean zozketatzeko, emandako babesagatik gure esker ona adierazi nahi diegulako. Bazkide guztiak sartuko dira zozketan eta beraiek ez dute ezer berezirik egin behar. Bakoitzari zenbaki bat egokituko zaio eta automatikoki sartuko dira zozketan.

Eibar FT taldea ikusteko sarrerak eta bazkaria Belaustegi jatetxean Apirilean bi sari izango ditugu. Lehenengoa **apirilaren 5ean** zozketatuko dugu eta saridunak Eibar FT eta Alcorconen arteko partidua ikusteko bi sarrera eskuratuko ditu (partidua Ipuruan izango da apirilaren 21ean). Bigarren saria **apirilaren 19an** zozketatuko dugu, eta, kasu honetan, Belaustegi jatetxean bi lagunentzako degustazio-bazkaria izango da.

Otarra, robot aspiradora eta bazkaria Txurruka jatetxean Maiatzean hiru sari potolo izango ditugu zozketatzeko. Alde batetik, **maiatzaren 3an**, frutaz betetako otarra banatuko dugu. Bestetik, **Maiatzaren 17an**, saria etxetresna elektriko bat izango da: robot aspiradora bat eskuratzeko aukera izango dute bazkideek, zehazki, `iRobot Roomba 692´ robot

zarelako **g**ara

Apirilak
5

Eibar FTren partidua ikusteko 2 sarrera

Apirilak
19

Bazkaria Belaustegi jatetxean

Maiatzak
3

Fruta-otar ederra

Maiatzak
17

Roomba aspiradora

Maiatzak
31

Bazkaria Txurruka jatetxean

Ekainak
7

Opari-bonua Hotel Talasoterapia Zelaian

aspiradora (Wifi konexioarekin). Eta hilabetea amaitzeko, **maiatzaren 31n**, Txurruka jatetxean bi laguntzako bazkari ederra zozketatuko da.

Ekainean banatuko dugu azken saria. **Ekainaren 7an** Zumaiaiko Hotel Talasoterapia Zelaian bi laguntzako opari-bonu bat irabazi ahal izango dute bazkideek. Bertan sartzen dira 90 minutuko zirkuitoa eta denboraldiko menua.

Esan bezala, elkarteko bazkide guztiak sartuko dira zozketan, nola ez, eta, zozketak egin ahala, jakitera emango ditugu irabazlearen izenak.

Zarelako Gara gizarteratze kanpaina martxan

Otsailaren 20an Zarelako Gara gizarteratze kanpaina abiatu zuen ...eta kitto! Euskara Elkartek. Herriak elkartea hobeto edo gehiago ezagutzeko, zer den, zeintzuk dira

bere balioak, zer egiten duen eta zertarako argi izatea lortu nahi dugu kanpaina honekin. Eta, horrekin batera, herritarrek bazkide egitea, gure balioekin, gure jardunarekin eta gure helburuekin bat egiten dutelako. Azken batean, babes soziala da guk lortu nahi duguna.

Hori dela eta, gure elkartearekin bat egiteko gonbita luzatu nahi dizuegu eibartar guztiei, gure herriaren euskara eta euskal kultura sustatu eta zaintzarekin konprometitutako elkarte honetan parte har dezazuen.

Bazkide-kuota urtean behin ordaintzen da. 5 eurokoa da 16 urte-tik beherakoentzat; 20 eurokoa langabetu, ikasle eta jubilatuentzat; eta 50 eurokoa lanean ari direnentzat. Gurekin harremanetan jartzeko 943200918 telefonora deitu dezakezue, elkartea@eta-kitto.eus helbidera idatzi edo www.etakitto.eus webgunera erabili.

Hurrengo asteetan opari bereziak zozketatuko dira ...eta kitto! Euskara Elkarteko bazkideen artean

Gure elkartearekin bat egiteko gonbita luzatu nahi dizuegu eibartar guztiei



Izengabeak musika lehiaketa berria eta Izaroren kontzertua ekainerako

Hasierako aukeraketa-fasean hautatzen dituzten talde eta bakarlariak Untzagan arituko dira, San Juan jaien atarian, ekaineko bigarren asteburuan egingo den lehiaketan. Gainera, bigarren egunean, Izaro Mallabiko abeslariak kontzertua emango du bertan.

Gure herrian eta Debabarrenean dagoen musika-talentua sustatu eta nabarmentzeko asmoarekin, *Izengabeak* musika-lehiaketa antolatu du Udalak, eta horren berri eman dute aste honetan egindako prentsaurrekoan Jon Iraola alkateak eta Andoni Zabala Kultura zinegotziak. Alkateak azaldu duenez, proiektu hau PSE-EE eta EH Bildu taldeen arteko 2023ko aurrekontu-akordio baten emaitza da. Sanjuanen atarian, ekainaren 7an eta 8an, egingo da lehiaketa, Untzagan eta, gainera, bigarren



egunean (zapatuan), Izaro Mallabiko abeslariak Untzagan bertan kantatuko du.

Azaldutakoari jarraituz, bertan parte hartzeko musika-taldearen %50ak gutxienez Debabarrenekoa izan beharko du. Horrez gain, orain arte bi disko baino gehiago kaleratu ez izana ezarri dute baldintza modura. Musika-estiloan erabateko askatasuna dago, “eta horrek aparteko aukera emango die herriko artistei beraien originaltasuna erakusteko”.

Parte hartzeko, interesdunek lehiaketaren web-orrian prestatutako atal batean eman beharko dute izena. Bertan, taldearen historia labur bat, argazki adierazgarri bat, rider edo fitxa tekniko bat eta lau kantu aurkeztu beharko dituzte, MP3 formatuan. Abesti horietako bi, gutxienez, konposizio originalak izango dira, eta gutzira ez dute 20 minutu baino gehiago iraungo.

Sari garrantzitsuak irabazleentzat

Lehiaketak bi fase nagusi izango ditu: hasierako aukeraketa-fasean, izena emandako talde eta bakarlari gutzietatik hautaketa bat egingo da; eta lehiaketaren azken fasean, hautatutako finalisten zuzeneko emanaldiak egingo dira. Andoni Zabala Kultura zinegotziaren arabera, “lehiaketak, talentua erakusteko plataforma bat izateaz gain, musikarien eta publikoaren arteko interakzioa eta ideien hartu-emaña ere sustatuko du”.

Sariak ere erakargarriak izango direla nabarmendu dute: 3.000 euro eta 150 ordu Legarreko grabazio-estudioan irabazlearentzat, eta 2.000 euro eta 150 ordu Legarreko grabazio-estudioan bigarren geratzen denarentzat. Horrez gain, euskarazko kantu onenarentzat 500 euroko saria ere izango da.



ADELA Gipuzkoa elkarteari laguntzeko antzezki zuna

La Red Teatro antzerki taldeak, ADELA Gipuzkoa Elkartearekin eta Udaleko Kultura sailarekin elkarlanean, *Los olivos pálidos* antzezlanaren emankizuna antolatuko du apirilaren 14rako, Coliseo antzokian, 12:30ean. Maite Lorenzo, Juanma Cano, Nerea Ariznabarreta eta Enrique *El Vaka* arituko dira taula gainean, Mikel Areitioaurtenaren zuzendaritzapean. Sarrerak 10 euro balio du eta diru-bilketa osoa Gipuzkoako Alboko Esklerosi Amiotrofikoa duten gaixoei eta haien familiei emango zaie, gaixotasunak dakarren karga fisiko, ekonomiko eta emozionalean laguntzeko.



Udaberriko oporretan euskaraz gozatzeko gida

Aste Santuko oporrak hasten direla eta, familian euskaraz gozatzeko moduko jolasen eta liburuen bilduma prestatu dute Euskara Zerbitzuak eta Juan San Martin Udal Liburutegiak. Diotenez, “opor garaian umeekin egoteko denbora gehiago dagoenez, euskara indartzeko ere une egokia da”. Horretarako, irakurgaiak eta jolasak jasotzen dituen gida sortu dute.



Amianto Fest jaia, Frediuren sei urteak ospatzeko

Frediyskate-parkearen seigarren urteurrena ospatzeko, Amianto Fest jaia egingo da bihar. Goizeko 10:00etan hasiko da egitaraua: pintxoak eta edariak, serigrafia eta maskara tailerrak, musika, graff-jam, skate-jam, jokoak... antolatu dituzte, besteak beste. Arratsaldean, berriz, kontzertuak egongo dira, 18:00etatik aurrera, Ejke, Hilerri, Hellwatch eta Steven Spizberg taldeen eskutik. Ondoren, 20:30ean, Eibarko Gaztetxeraino kalejiran joango dira, eta 21:30ean kontzertuak hasiko dira bertan (sarrerak 5 euro balio du). TKM, Tres Cuervos, Los Chivatos eta Sistema de Entretenimiento taldeak eta Sunny Wright, 90 Grados, Urbe, Raff Laurén, Pila eta Xuxxe DJ-ak arituko dira.

Idoia abeslariaren kontzertua

Apirilaren 13an aurkeztuko du *De amar y desandar* lan berria Idoia artista aramaioarrak, 20:00etan Coliseo antzokian. Maitasunaz, hazkunde pertsonalaz eta bide horretan sortutako oroitzapenez hitz egiten duten kantuak bildu ditu abeslariak, bere bigarren diskoa den honetan. Sarrerak 12 euro balio du (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Erakusketak domekara arte

Egunotan herriko erakustokietan ikus daitezkeen erakusketak domekan itxiko dituzte: Topalekuan Eguen Zuri argazki-lehiaketako argazkiak ikus daitezke (tabernatik sartuta); eta Portalean, berriz, Leire Kareagaren *Quo vadis, Europa?* eta Andrea Alvarezen *Zure baratzean hazten den gutzia* (18:30etik 20:30era).



AURKITU 9 EZBERDINTASUNAK



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

5				6	8	9	
				5	2	1	
2	7					5	
4			1	9			
		2			1		
			3	7		8	
6						8	4
	5	7	6				
1	4	9					2

2	9	8	5	4	1
1	6	7	3	8	9
8	2	1	9	6	5
4	1	8	6	2	7
7	3	5	2	9	8
9	4	6	7	1	3

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

				8	7		
			1	5	8	3	
		2			5	4	
9	4		1				
8	1		7			9	2
				3		1	8
	6	4			1		
7		2	6	5			
	9		3				

2	9	8	5	4	1
1	6	7	3	8	9
8	2	1	9	6	5
4	1	8	6	2	7
7	3	5	2	9	8
9	4	6	7	1	3

soluzioa

Martxoak 22 / Apirilak 4

BARIXAKUA 22

KORRIKA KULTURALA

17. logela ihes-gela.
Untzaga.



GURE ESKU

19:00/20:30 Ikurriña eta nafar banderen salmenta, Gure Eskuko kideen eskutik. Untzaga.



ZAPATUA 23

KORRIKA KULTURALA

17. logela ihes-gela.
Untzaga.

ASANBLADA

12:30 Txosnagunearen inguruko asanblada informatiboa, Jaixak Herrixak Herrixandakok antolatuta. Txaltxa Zelaiko auditorioa.



AMIAN TO FEST

13:00 Pintxoak, tailerrak, bermuta DJ Aimakarrekin, skate-jam.

18:00 Kontzertuak: Ejke, Hilerri, Hellwatch, Steven Spizberg.
21:30/06:00 TKM, Tres Cuervos, Los Chivatos, Sistema de entretenimiento, DJ Sunny Wright, 90 grados, Urbe, Raff Lauren, Pila Xuxxe. Eibarko Gaztetxea.



ZAPOREAK ERRONKA

14:00/15:00 Tuper solidarioa: erdia lentejak bakailaoarekin, beste erdia arroza Lumagorriekin eta fruta pieza bat. 5 euro. Errebal Plaza.



ZAPATUKO IPUINA

18:00 "Rol jokoa", Ana Apikaren eskutik. Portalea (areto nagusia).



DOMEKA 24

KORRIKA KULTURALA

17. logela ihes-gela.
Untzaga.

MUSIKA

13:00 "Stop genocidio" manifestazioa, Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik Ez taldeek deituta. Untzaga.



ERAKUSKETAK

Martxoaren 24ra arte:

- **EGUEN ZURI argazki lehiaketako argazkiak**. (Topaleku).
- "**QUO VADIS, EUROPA**", Leire Kareagaren artelanak. (Portalea).
- "**ZURE BARATZEAN HAZTEN DEN GUZTIA**", Andrea Alvarezaren artelanak. (Portalea).

Apirilaren 16ra arte:

- "**AMA TA ASUNAK**", June Baonza Pagaldaireren proiektua. (Andretxea).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

22an (BARIXAKUA)

ABESTIAK

19:30 / Patxi plazatik
Ermuan kantuan

ELGOIBAR

23an (ZAPATUA)

AZOKA

09:00-14:00 /
Kalebarren plaza
Km0 Sustatzeko Feria

DEBA

23an (ZAPATUA)

DANTZA

12:30 / Ibaiko pasealekua
Barra klasikoa erakustaldia

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **23an:** 19:45, 22:30
- **24an:** 17:00
- **25ean:** 19:30

“Hotel Royal”
DRAMA



2023/Australia/90'
Zuzendaria: Kitty Green
Aktoreak: Julia Gamer,
Jessica Henwick, Hugo Weaving
Thriller/Intriga

1 ARETOA

- **23an:** 17:00
- **24an:** 20:00

“Los pequeños amores”
DRAMA



2024/Espainia/95'
Zuzendaria: Celia Rico
Aktoreak: Maria Vazquez,
Adriana Ozores, Aimar Vega
Familia arazoak/Alaba eta ama

2 ARETOA

- **23an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **24an:** 17:00, 20:00
- **25ean:** 19:30

“Los niños de Winton”
DRAMA




2023/Erresuma Batua/110'
Zuzendaria: James Hawes
Aktoreak: Anthony Hopkins,
Johnny Flynn, Helena Bonham
Nazismoa/Biografikoa

ANTZOKIA

- **23an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **24an:** 17:00, 20:00
- **25ean:** 19:30

“Cazafantasmas”
KOMEDIA



2024/AEB/114'
Zuzendaria: Gil Kenan
Aktoreak: Paul Rudd,
Carrie Coon, Finn Wolfhard
Fantastikoa/Sekuela

zuhaitz eguna

bertako zuhaitzak landatzea

Eibarren

apirilak 7

Goizeko 09:30ean
Urkoko lgoerako
aparkalekuan,
Ixuan

Izena ematea beharrezkoa
Apirilaren 4a baino lehen
Plaza mugatuak



ANTOLATZAILEAK





 info@lurgaiia.org

 Adierazi parte-hartzaileen izen-abizenak, adina eta telefono bat (ezustekoetarako bakarrik)

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **AROA**, gaur 6 urte bete dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **MANEX!** Gaur 8 urte, txapeldun! Musu asko famelixaren eta, batez be, zure arreba Maialenen partez!



Zorionak, **MARTIN** Gallastegi, bixar 7 urte beteko dozuz-eta. Maite zaittugu, bihotza!



Zorionak, **OIER!!** Etxeko txikixak astelehenian 2 urte bete zittuan-eta. Patxo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **NILE!** Hillaren 11n 4 urte bete zenduaz-eta. Musu erraldoi bat zure ahizpa Nahiaeren partez!



Zorionak, **MARIFELI**, gaur urtiak betetzen dozuz-eta. Ondo ondo ospatu, Etxegiñako lagunaren partez.



Zorionak, **MARIANA** Elgezua Zabaleta, hillaren 29xan 100 urte beteko dozuz-eta! Famelixako guztion partetik.



martxoak
23
20:30-21:30

60
LA HORA DEL PLANETA



Egizu bat PLANETAREN ORDUarekin!

Eibarko Udalak "Planetaren Ordua" ekimenarekin bat eginez, **ORDUBETE ITZALIKO DITU** Untzaga plazako eta Udaletxearen erlojuko argiak.

Itzali argia.
Eman buelta bat Planetari.





Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Errioxan, Bañareseko kanporean, mobilhome salgai (9,20x3,70 m). Itxitako portxe handia (10x3,50 m) eta 30 m karratuko lorategiarekin. 637587811.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Lokala salgai (102 m²) Legarreko dorrean, egokia komertziorako edo garaje bezala erabiltzeko. 626719802 eta 659504114.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da edozein lanetarako: zainketak, garbiketak, etb. 612228607.
- Emakumezkoa eskaintzen da arratsaldez eta gauetz nagusiak zaintzeko. 643464307. Virginia.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. 642084800.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. 614328776.
- Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. 632881068.

- Gizonezkoa eskaintzen da pintore bezala: pladur etb. Esperientzia. 631509262.
- Manikura eta pedikura egiten da etxeetan: tradizionala eta gel basikoan. 632881068.
- Geriatria-laguntzaile euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. 660511781 eta 943742330.
- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketak egiteko eta mekaniko bezala. 605363057.
- Emakumea eskaintzen da etxeko garbiketak egiteko. 613215006.
- Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 602109464.
- Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 642671818.
- Neska eskaintzen da etxean lan egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketaketarako. 661181824.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Esperientzia. 632716763.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. 631959843.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Esperientzia nagusiak zaintzen. 631759107.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. 679912841.

4.2. Langile bila

- Elgoibarko enpresa batek biltegian eta banaketan egun erdiz lan egiteko pertsona behar du, maiatzetik abuztura. Gidabaimena ezinbestekoa da. Bidali curriculum: hornikuntza@gmail.com
- Ilea zaintzaile behar da. Esperientzia eta lanerako gogoarekin. Bidali curriculum: ayerravg@gmail.com. 626524949.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

gremioen gida



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ELEKTRIZITATEA

THELECEER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
610 532 922 www.thelecer.com

ITURGINTZA

PERU FONTANERO
iturgintza eta kalefakzio konponketak



telefonoa: 660522521 whatsapp: 605403596

Termo elektrikoan aldaketa
Mangaparen instalazioa

Erradiadoreetako ihesen konponketa
Komunetako ihesen konponketa/aldaketa
Etxeko elektrizitate arloa ezagutzen dugu
Destratatzeak / Pintura lanak

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txenta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobear
goza dezazun

Azitaín Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
NELBIDE
BERRIA : J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com eta faxa:
943 203 903



943-206776



zarelakopara

Egin zaitez bazkide!

eta kitto!
euskara elkartea